

**ALDI BATERAKO ARKITEKTOA KONTRATATU ETA ARKITEKTOAREN
KONTRATAZIO-PREMIEI ERANTZUTEKO LAN-POLTSA OSATZEKO PRESAZKO
DEIALDIAREN OINARRIAK**

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da aldi baterako izendapen premiei erantzungo dien ARKITEKTOEN lan-poltsa osagarria osatzea. Lan-poltsa osagarri hau lan-poltsa indarrean dagoen bitartean sortzen diren aldi baterako kontratazio premiei erantzuteko izango da.

Lanpostua Udaleko Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuan sartuko da eta eginkizun eta ardura nagusiak 2. oinarrian zerrrendatzen direnak izango ditu.

Deialdiko lanpostuak Bergarako Udaleko langileriaren lan-harremanak arautzen dituen hitzarmenak jasotako Ordainsarien Taulako 18. maila izango badu ere, plaza honen balorazioa egin gabe dago eta balorazioaren atzeraeraginak izendapenaren lehen egunetik aplikatuko dira.

Plaza honek derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna du eta derrigortasun-data beteta du.

Lanaldia udalak urtean-urtean finkatzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikokoak aintzat harturik.

Aldi baterako kontratatzen den langileak kontratatzen den lanpostuaren premietara egokituko du bere lan-egutegia, zerbitzuaren premietara hain zuzen.

Aurreikusi den lehen aldi baterako izendapen premia da 2024ko martxoaren 15ean hasi eta HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) berria onartzeko prozesuari lotutako Hirigintza departamenduko arkitekto eta orokorrean langilego premien definizioa egiteko programari erantzuten diona, programaren iraunaldi estimazioa 3 urtekoa izanik.

Sei hilabeteko frogaldia izango du. Denbora hori efektiboki burutu beharko du, eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

2.- Lanpostuaren eginkizunak

Programa honen ildoan eginkizunak, besteak beste, izango dira:

1.- Hirigintza-kudeaketaren ardurei dagokienez:

- Antolaketa-egituraren zeharkako proiektu teknikoak kudeatzea.
- Bere eskumen-eremuko gaiei buruzko txosten teknikoak, azterlanak, erregelamenduak, jardueren memoriak eta estatistikak idaztea.
- Bere eskumenen barruko gaietan, ikerketak, txostenak, aholku-emateak eta proposamenak egitea.
- Norbanakoek zein beste administrazioek eskatutako zertifikazio eta espedienteak bideratzea.
- Diziplina urbanistikoa obra nagusietan, eta jarduera baimenen txostenak zein txosten bereziak egitea.
- Hirigintza-gaiei buruzko zigor-espedienteak edo zuzenketa-neurriak bultzatzea (hirigintza eta ingurumen arloko araudiaren kontrako ekintzen edo jardueren

txostenak egin, eta legeak edo araudiak aurreikusitako ondorioak proposatu eta horiek gauzatzeko prozedura abiatzea proposatu organo agintedunari).

- Bere ardurapean dauden espedienteen erantzukizuna hartzea.
- Jardueren jarraipen dokumentala.
- Plegu teknikoak idaztea eta kontratuen jarraipenean laguntzea.
- Bere eskumen eremuari dagozkion erosketa eta kontratazioetan, arlo teknikoari dagozkion eginbeharrak gauzatea: baldintza teknikoen agiriak prestatu, kontratazio prozeduran aholkularitza teknikoa eskaini, kontratuen jarraipena eta kontrola burutu, gastuen kontrola eraman eta gainbegiratu, etab.
- Kanpoko enprekin zein kontratatuta dauden enprekin harremanak mantentzea.
- Bere eremu profesionaleko balorazioak, aurrekontu eskaerak, adjudikazioak, erreklamazioak, etab. egitea.
- Bere eskumenen esparruan, teknikoki konplexuak diren proiektuak garatu eta bultzatzea.
- Udal obrei buruzko aurrekontu eta txosten edo proiektuak idatzi, bultzatu eta kudeatzea.
- Udal sustapeneko obra txikien proiektuez eta proiektuen zuzendaritzaz arduratzea, honi dagokion ziurtapenak, baldintza pleguak eta jarraipen programak informatuz, arloko arduradunarekin batera.
- Udaleko proiektuen egiaztapena eta jarraipena egitea, udal instalazio, eraikin, bide, etab.-etan bisitak burutuz.
- Dirulaguntzak eta finantziazio ekonomikorako iturriak bilatzea.
- Bere eskumen eremuari dagozkion diru-laguntza eskaeren tramitazioaz arduratzea.

2.- Orokorrean:

- Bere eskumenen esparruan, jendeari arreta eta informazioa ematea.
- Hirigintza batzordeari laguntza teknikoa eskaintzea, bertan eztabaidatuko diren eta bere ekintza eremukoak diren gaiak prestatuz, azterketa, txosten edo kontsultarako.
- Udal aholkularitzari aholkua eskaintzea eta herritarren edo udaleko kideen kontsultei erantzutea.
- Herritarren Arreta Zerbitzua bideratzea eta zerbitzu horri aldizka unitatearen informazio egiazkoa eta eguneratua ematea, Udalak informazio hori azkar, argi eta ondo bidaltzeko diseinatzen duen egituraren bitartez.
- Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren, eta horrela eskatzen zaizkion beste lan batzuk, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak, burutzea.
- Hierarkian gorago dagoenak esleitzen dion antzeko beste edozein zeregin egitea.

3.- Izangaien baldintzak

Deialdi honen helburuari jarraituz kontratatua izateko eta, beraz, hautaketa-probetan parte hartzeko, honako baldintza hauek ezinbestekoak dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko herritarra izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalen ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, nazionalitatea edozein dela ere, eta, kasuan kasuko itunak hala aurreikusten duenean, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaion estatuetakoz nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza berberekin, haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek parte hartu ahal izango dute, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak badira eta haien kontura bizi badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: arkitekto titulua.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria duela egiaztatu beharko da.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea zeina egiaztatuko baitute dagokion zerbitzu medikoek, karrerako funtzionario izendatu aurretik. Hori dena, errege dekretu hau aplikatzearen kalterik gabe: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.

e) Diziplina-espediente batez edozein herri administrazio edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako gaitasun-gabetzea erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko.

Beste estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ere, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Funtzionario publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagokien legezko xedapenek ezarritako baldintzetan.

g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa (11,20 euro) ordaintzeari dagokionez, transferentzia bidez edo izena emateko aplikazioak emandako bidetara jarraituz egingo da, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia; eta kontu korrante honetan egin beharko da:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

h) 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara-maila, derrigorrezkoa. Hala ere, 3. hizkuntz eskakizuna dutenak ere onartuak izango dira, eta 4. hizkuntz eskakizuna egiaztatu duenik ez balego 3. H.E.arekin kontratatzeko aukera izango du, prozesuan izandako hurrenkera edo lehentasunaren arabera.

4.- Instantziak

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori Bergarako Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) "Udal lan eskaintza" atalean bete beharko da.

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuta.

b) Eskabidean adierazi egin behar dira baloratu nahi diren merezimenduak.

Honako baldintza/informazio hauek ofizioz egiaztatu eta/edo espedienteari gehitu ahalko zaizkio, interesdunak berariaz kontrakorik adierazten ez badu:

- Nortasun-datuak egiaztatzea
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).
- Hizkuntza-eskakizunik altuena (Euskara).
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenez esango dena.

c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko "Udal lan eskaintza" ataletik modu elektronikoa aurkeztuko dira **2024ko urtarrilaren 15etik 2024ko otsailaren 1era arteko epean.**

Egitezko errakuntzarik hautematen bada, edozein unetan zuzendu ahal izango da, ofizioz edo interesatuak eskatuta, hurrengo pasartean zehaztutako kasuan izan ezik.

Eskabidean merezimenduak adierazi ez izana soil-soilik zuzendu ahalko da aurkezteko epea amaitzen ez den bitartean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Zuzenketa egiteko, izena emateko aplikazioaren bidez beste eskaera bat egin beharko da datu guztiak betez, eta izangai bakoitzak aurkeztutako azken eskaera baino ez da kontuan hartuko.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak zehatz adierazi ez izana. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko ezta, dagozkion tasak ordaindu ez izana eta eskaria baztertua izango da automatikoki.

Tasa ordaindu baina eskaria ez aurkezteak ere eskatzailea automatikoki baztertzea ekarriko du.

5.- Izangaien onarpena

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak **2024ko otsailaren 5ean** jarriko dira ikusgai Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian.

Udalak Lau (4) egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web-orrian ere argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda Begarako Udaleko iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurto aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtoa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

Lehenbizi egingo den probaren eguna(k) onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko d(ir)a udaleko web-orrian eta iragarki taulan. Horren eraginetarako, Alkateak, oposizio aldiko ariketen hurrenkera aldatu eta zein ariketarekin hasi erabaki dezake.

6.- Epaimahai kalifikatzailea

6.1. Osaera: Hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea honako hauek kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan ezarritakoa.

Epaimahaia osatuko dute Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen mahaiburuak, idazkariak eta kideek, eta inoiz ez dira izango bost (5) baino gutxiago (lehendakaria barne); gainera, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da, eta ezinezkoa balitz espedientean ziurtatuta lagako da.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Udalaren WEB orrian argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalan presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak eta langileen ordezkariak izendatutako batek parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusateza. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratu da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezeko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezingo da osatu ezta jardun ere, bertan edo urrutitik konektatuta ez baldin badaude titularretako edo ordezeko diren kideetako erdiak eta lehendakaria eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezekoak. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Izangai batek ere gaudituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia bete gabe geratuko da.

7.- Hautaketa-prozedura:

Izangaiak hautatzeko prozedurak hurrengo aldiak izango ditu:

- a) **Azterketen fasea** (Oposizioaldia)
- b) **Lehiaketaldia**

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak —baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere— hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Haurdunaldian edo edoskitze-aldian dauden emakumeek eskatu ahal izango dituzte egokitzapen materialak; horretarako, aurretiazko jakinarazpena egin beharko diote Langileria eta Antolaketa Arloari, gutxienez proba egin baino bost egun baliodun lehenago. Emakumezko hautagaien batek, behar bezala egiaztatutako haurdunaldiko arriskua edo erditzea dela eta, ezin badu hautaketa-prozesua burutu edo hautaketa-prozesuko ariketaren bat egin, haren egoera baldintzapean geratuko da, alegia, prozesua amaitu beharko du eta geroratutako faseak gaudituko beharko ditu; baina fase horiek ezingo zaizkio gehiegi atzeratu, gainerako hautagaiek prozesua zentzuzko epean ebatz dadin daukaten eskubidea ez urratzeko. Hori epaimahaiak baloratu beharko du, eta, betiere, hautaketa-prozesua gaudituko duten hautagaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira geroratutako probak.

Kalifikazio-epaimahaiak egokitu egingo ditu probak egiteko denbora eta/edo bitartekoak desgaitasun egiaztatua duten pertsonentzat, haiek alde aurretik eskatuta, aukera-berdintasuna bermatuz eta eska daitezkeen edukiak edo gaitasun-maila indargabetu gabe.

Azterketen fasea (oposizioa).

— **Lehen ariketa:** Epaimahai Kalifikatzaileak zehazten dituen suposizio edo kasu praktikoak edo/eta teoriko-praktikoak ebatzi beharko dira. Oinarri hauen I. Eranskinetako

gaien edukiarekin edo/eta lanpostuaren berezko funtzioekin zerikusia dutenak izango dira.

Atal honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez, eta prozesuan aurrera jarraitzeko 20 puntu atera beharko dira.

— **Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailerik: lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko proba. Derrigorrezkoa eta baztertzailerik hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesioerakoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzen bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko eta elkarrizketa egitean datza.

Bigarren ariketa honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez, eta hogeita bost (25) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

— **Hirugarren ariketa:** Euskararen ezagutza egiaztatzen probak egingo dira.

Derrigorrezkoa eta baztertzailerik hautagai guztientzat. Gai edo Ez-gai baloratuko da.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen frogak egingo dira.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzen Epaimahaiak ofizioz azterketaren egunerako 4. hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen dituen izangaiak.

Honako hauek dira euskara-tituluen arteko baliokidetzak jasotzen duten araudiak:

297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dena; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen probak Bergarako udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak egingo ditu eta barne eragina izango dute soilik, hau da, Bergarako udalerako eta deitutako lanposturako, beti ere udalak udal barrurako bada ere beste balio bat ematea erabakiko ez balu.

Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta udalaren web-gunean (www.bergara.eus) argitaratuko ditu emaitzak eta ariketa gainditu duten eta gainditu ez duten izangaien zerrenda.

Probak egiteko egunean errekurtsoaren bat ebatzeko badago, interesdunak kautelaz egin ahal izango ditu, baina ez dute baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

Hautagaien jokabide irregularrak. Epaimahaiak hautaketa-prozesutik baztertzeko ahalmena izango du edozein motatako iruzurrak egiten dituen pertsona oro, edozein proba normal egitea eragozten badu edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak urratzen baditu. Epaimahaiburuak berehala jakinaraziko dizkio jarduketak horiek Langileria eta Antolaketa Arloari, eta bilkurako aktan jasoko ditu. Era berean, hautaketa-prozesua osatzen duen edozein proba egiten den bitartean, ez da onartuko arestian aipatutako printzipioak urratzeko erabil daitezkeen gailu edo bitarteko teknologikoak erabiltzea edo erabiltzea; jokabide horrek berehalako bazterketa eragingo du.

Merezimenduen fasea (lehiaketa)

Azterketen fasea gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira.

Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu edo adierazi ez diren merezimenduak, ezta horiek egiaztatzeko epaimahaiak emandako epean aurkeztu ez direnak ere. Merezimenduak egiaztatzeko epe hori oposizioaldian aurreikusi diren 3 probak amaitu ondoren argitara emango da web-orrian.

Fase honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu baldin eta oinarri honetan jasotakoari jarraituz behar bezala kreditatuak izaten badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuz.

—Egindako zerbitzuen egiaztapen-agiriak:

- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira, eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.
- Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango, eta hautagai bakoitzaren espedientean ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.
- Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak (betetako funtzioak zehaztuta) eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira.

Kasu guztietan, Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiria ere aurkeztuko da, bai administrazioan bai enpresa pribatuan egindako lana ziurtatutzat kontsideratu dadin.

a) Administrazio publikoan egindako beste zerbitzuak:

Arkitekto titulazioari dagokion lanpostua edo funtzioak betetzen administrazio publikoan egindako zerbitzuak gehienez ere **hamabost (15) punturekin** kalifikatuko dira, lan-jardun osoan zerbitzuko egun bakoitzeko 0,016 puntu esleituz, eta baloratua izateko gutxienez 30 eguneko epealdi jarraitua izan beharko da lanpostu berean (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko).

Dedikazioa lanaldi osokoa ez bada izan, dagokion hainbanaketa egingo da puntu kopuruan.

Ondorio horietarako, atal honetan baloratzeko eraginetarako, administrazio publikoan egindako zerbitzutzat joko dira zuzeneko erlazioaren bidez eginak –funtzionario gisa zuzenbide administratiboaren erregimenean edo langile laboral gisa zuzenbide laboralaren erregimenean—. Ez dira baloratuko, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak edo formazioko praktikak ere.

b) Beste zerbitzu batzuk:

Beste zerbitzu hauek ere baloratuko dira, betiere kreditatuak izan badira, eta atal honetan gehienez ere **zazpi (7) puntu jaso ahalko dira**.

Arkitekto titulazioari dagokion lanpostua edo funtzioak beteaz esparru pribatuan eta zuzeneko lan erlazioaren bidez inoren konturako kontratuarekin egindako lanak baloratuko dira, lan-jardun osoan egindako zerbitzuko egun bakoitzeko 0,006 puntu

esleitzuz, eta baloratua izateko gutxienez 30 eguneko epealdi jarraitua izan beharko da lanpostu berean (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko).

Ondorio horietarako baloragarritzat joko dira zuzeneko erlazioaren bidez zuzenbide laboralaren erregimenean egindako lanak. Ez dira ebaluagai izango, atal honetan autonomo gisa egindakoak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

Halaber, eta atal honetako ataletan jasotako lan-esperientzia baloratzekotan (a eta b), honako egoera hauen artean egon izan balitz, adierazi egin beharko du eskaera-orrian zenbat denbora egon den hautagaia egoera horretan, eta horrek zinpeko aitortpenaren balioa izango du, horiek agiri bidez egiaztatzea ere eskatu ahal izango diolarik epaimahaiak:

- senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia(k)
- amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizi bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketak edo baimen egoera(k).
- genero-indarkeriagatik baimena(k)

Egoera hauetan egon izan den denbora zerbitzu aktiboan egon izan dela ulertuko da.

c) Formazio osagarria:

Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da **gehienez ere 8 puntura arte**.

Horren guztiaren eraginetarako, baloratzekoan kontutan izango direnak hauek izango dira

1.- Ikastaroek gutxienez 30 orduko iraupena izan beharko dute eta 30 ordukoari 0,10 puntu emango zaio eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.

Bakoitza gehienez ere 3 punturekin baloratuko da.

2.- Lanpostuaren eginkizun edo funtzioekin zerikusia izan beharko dute zuzen-zuzenean.

3.- Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumenaren inguruan EVETUK edo pareko erakundeek emandako ikastaroak/jardunaldiak kontuan izango dira.

4.- Beste erakunde ofizialek emandako ikastaroei dagokienez, bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena, ordutan, jaso beharko dute. Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

8.- Onartuen zerrenda eta kontratatze prozedura:

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Lehenengo ariketan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Bigarren ariketan puntuazio handiena izatea.

- c) Administrazioan izandako lan esperientziari dagokion merituen atalean puntuazio handiena izatea
- d) Aurreko denetan berdinketa balego, zozketa bidez egingo da.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienera.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lan-poltsarako gutxienerako baldintzak betetzen dituenik, lan-poltsa hutsik geratu dela aldarrika daiteke.

Izendatua izateko eta Lan-poltsarako proposatuak izan diren izangaiek, jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatu diren baldintzak betetzen dituztela eta ofizios egiaztatu ezin izan diren jatorrizko agiriak aurkeztea eskatuko zaie.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiek eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira eta ez da lan-poltsarako izendatuko eta kanporatzea erabakiko du alkateak.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era:

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiek, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa(k) burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz iragarki-taulan emango da argitara ariketak gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Lan-poltsa. Kontratazioa-praktikaldia:

Prozesua gainditu duten hautagaiekin, udalean, dagozkion lanetarako aldi baterako premiei erantzuteko lan-poltsa osagarria osatuko da.

Udalak aldi baterako kontratatzeke dituen premien aurrean, lan-poltsa honetara joko du. Udalak 2018 urtean osatutako arkitektoen lan-poltsak honen osagarri izaera izango du.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari edo izendapenari uko egiten diona zerrendaren azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Kontratua hasi aurretik Bergarako Udalak kontratatutako mediku-zerbitzuak beharrezko osasun azterketa eta probak egingo dizkio izangaiari bere osasun egoera lanpostuaren eginkizunak betetzeko egokia dela egiaztatzeke, eta gai ez dela emango balu izendapena bertan behera laga eta lan-poltsatik kanpo utziko du.

11.- Dokumentazioa itzultzea:

Eskabidearekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko denak eta lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu edo/eta espedientetik ezabatuko du Udalak.

12.- Prozesuaren argitalpenak eta datu pertsonalak:

Argitalpenak:

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko iragarki taulan eta web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babesa

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioa libreaki lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan sartzen dira. Jarduera horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legimitatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharraren baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Halaber, izangaiak berriazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusitako bezala. Izangaiaren onarpena berriaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Halaber, eskubideak errespetatu ez badira edo eskaerari erantzun zuzena eman ez bazaio, hautagaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (<https://www.avpd.euskadi.eus>). Tratamenduari buruzko informazio osagarria eskuragarri dago Bergarako Udalaren webguneko Pribatutasun Politika atalean eta Datuen Tratamendu Jarduerean Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamenduaren kodea honakoa da: 0602.

13.- Gorabeherak:

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

14.- Inpugnazioak:

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

I. ERANSKINA

1. Urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretu Legegilea, Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzearen Legearen Testu Bateratua onartzekoa (LLTB).

2. 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa

3. 2009ko maiatzaren 25ean Udal Batzarrak behin betiko onarpena eman zion Bergarako Udal Planeamenduaren errebisorako Xabier Yeregi Aramendi arkitektoak idatzitako Plan Orokorren dokumentuari –testu bateratuari– (Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio-Azterketaren dokumentuarekin batera) (GAO 2009/07/27)

2012ko azaroaren 12an Udal Batzarrak hurrengo ebazpena eman zuen: 1. Behin betiko onarpena ematea Bergarako udal planeamendua berrikusteko Xabier Yeregi Aramendi eta Luis Pedro Blanco Conejo arkitektoek idatzitako Plan Orokorren Lehen Aldaketaren dokumentuari (Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketaren dokumentuarekin batera). (2012/12/17)

2021eko azaroaren 29an Udal Batzarrak hurrengo ebazpena eman zuen: 1. Behin betiko onarpena ematea Bergarako udal planeamendua berrikusteko Xabier Yeregi Aramendi arkitektoak idatzitako Plan Orokorren Bigarren Aldaketaren dokumentuari (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera). (GAO 2022ko urtarrilaren 12a)

4. 20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.

5. 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen eta bere eranskinak.

6. 80/2022 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen. (EHAO 2022/09/01)

7. 21/2013 LEGEA, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

8. 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

9. 415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) behin betiko onesten duena, eta hori aldatu duen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretua.

10. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena: Arau eta printzipio orokorrak. Arau orokorrak.

11. Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa.

12. 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa: Kultur ondarea osatzen duten ondasunak. Ondasun kultural kalifikatuak eta Babes Araubidea.

13. Urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.

14. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

15. 209/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea.

16.- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. I. eta III. kapituluak.

17.- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua eta 25 eta 50 artikulua.

18.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Obra-kontratua. Obra-kontratua prestatzeko jarduketak. Obra-kontratua egikaritzea. Kontratua aldatzea. Obra-kontratua betetzea eta suntsiaraztea.

BASES DE LA CONVOCATORIA URGENTE PARA LA CONTRATACIÓN DE UN ARQUITECTO TEMPORAL Y LA CREACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO PARA ATENDER SUS NECESIDADES DE CONTRATACIÓN

1.- Objeto de la convocatoria

La presente convocatoria tiene por objeto la creación de una bolsa de trabajo complementaria DE ARQUITECTOS que responda a las necesidades de nombramientos temporales. Esta bolsa de trabajo complementaria responderá a las necesidades de contratación temporal que se produzcan durante la vigencia de la misma.

El puesto de trabajo se integrará en el Departamento de Ordenación del Territorio, Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento y tendrá como funciones y responsabilidades principales las que se relacionan en la base 2. Si bien el puesto convocado tendrá el nivel 18 de la Tabla Retributiva recogida en el Convenio regulador de las relaciones laborales del personal del Ayuntamiento de Bergara, esta plaza está pendiente de valoración y los efectos retroactivos de la misma se aplicarán desde el primer día del nombramiento.

Esta plaza tiene asignado el perfil lingüístico 4 preceptivo, fecha de preceptividad cumplida.

La jornada laboral será la fijada anualmente por el ayuntamiento, teniendo en cuenta la naturaleza y necesidades específicas del puesto de trabajo.

La persona trabajadora contratada temporalmente adaptará su calendario laboral a las necesidades del puesto de trabajo contratado, en concreto a las necesidades del servicio.

La primera necesidad de nombramiento temporal prevista es la que de respuesta al programa de definición de las necesidades de personal de arquitectos y del personal en general del departamento de Urbanismo, iniciado el 15 de marzo de 2024 y vinculado al proceso de aprobación del nuevo PGOU (Plan General de Ordenación Urbana), con una estimación temporal del programa de 3 años.

Tendrá un período de prueba de seis meses. Deberá realizar efectivamente este tiempo y además tendrá carácter eliminatorio.

2.- Funciones del puesto

En el marco de este programa, se realizarán, entre otras, las siguientes funciones:

1.- En relación con las responsabilidades de gestión urbanística:

- Gestionar los proyectos técnicos transversales de la Organización.
- Redactar informes técnicos, estudios, reglamentos, memorias de actividades y estadísticas dentro de su ámbito competencial.
- La realización de estudios, informes, labores de asesoramiento y propuestas en materias de su competencia.
- Tramitación de expedientes y certificaciones solicitadas tanto por particulares como desde otra Administración.
- Disciplina urbanística en las obras principales y elaboración de informes sobre licencias de actividad e informes especiales.

- Impulso de expedientes sancionadores o medidas correctoras en materia urbanística (emisión de informes de actos o actuaciones contrarias a la normativa urbanística y medioambiental, y propuesta al órgano competente de efectos previstos en la ley o normativa y de inicio del procedimiento para su materialización).
- Responsabilizarse de los expedientes a su cargo.
- Seguimiento documental de las actividades.
- Redacción de pliegos técnicos y colaboración en el seguimiento de los contratos.
- Realizar las tareas correspondientes al área técnica en las compras y contrataciones de su ámbito competencial: elaboración de pliegos de prescripciones técnicas, asesoramiento técnico en el procedimiento de contratación, seguimiento y control de contratos, control y supervisión de gastos, etc.
- Mantener relaciones tanto con empresas externas como con empresas contratadas.
- Realizar valoraciones, peticiones presupuestarias, adjudicaciones, reclamaciones, etc., dentro de su ámbito profesional.
- Desarrollar e impulsar proyectos técnicamente complejos en el ámbito de sus competencias.
- Redacción, impulso y gestión de presupuestos e informes o proyectos de obras municipales.
- Responsabilizarse de los proyectos y de la dirección de proyectos de obras menores de promoción municipal, informando de las certificaciones, pliegos de condiciones y programas de seguimiento correspondientes, junto con el responsable del área.
